

Elx eta Guadamargo dunak.

Segura ibaiaren ahoan hedatzen dira Guardamar eta Elxeko dunak.

Dunek, etxeak, bideak eta soroak lurperatzearekin mehatxu egiten zutenez, XX. mendearen hasieran duna sistema honek hartzen dituen 11 kilometroak birpopulatu zituzten.

30 urte baino gehiago iraun zituen lanean, palmondo eta eukaliptoekin batera 600.000 pinu inguru landatu zituzten. Gaur egun, hau da paisaian nagusi den espeziea.

Itsasertzetik gertu, dunak egonkortasuna ematen dieten landarez estalita daude. Espezie ezberdinen artean, itsasoko uso-belarra aurkitzen da. Eta itsas-alpapa.

Dunetan *Cyperus*-ez osatutako zelai txikiak ere ugari dira.

Crucianella maritimak dunak egonkortuak daudela adierazten du. Hauen gainean ohikoak dira Valentziar betibizi horia eta *Teucrium dunense*, Valentziar erkidegoan babestutako espeziea.

Pinuen azpian, landare espezie gehiengoa desagertu egiten da, argi ezak euren garapena galarazten baitu; beraz, pinu orbelak bakarrik estaltzen du bertako lurra.

Pinudiko soilguneetan sarritan ikus daitezke garikota bezalako urteroko belar txikiak.

Linaria arabiniana, lore harrigarriak dituen espezie endemikoa, zailagoa da aurkitzen.

Legeltxor gogorra gaur egun dunetan irauten duten zuhaixka gutxien artean dago.

Dunen arteko sakonguneetan agertzen den urari esker, beste espezie batzuk garatzen dira, milazka, esaterako, eta ihia; hauek, ekosistemaren bioaniztasuna aberasten dute.

Hegaztiak, habiak egiteko, pinudiak hobetsi arren, egunaren ordu lasaienetan eremu zabaletara joaten dira janari bila. Horrela, txirriaren mugimendu bitxiak ikus daitezke duna biluzien gainean.

Dunetan, narrastiek bizitoki ezin egokiagoa aurkitzen dute, bere isatsaren koloregatik erraz bereiz daitekeen sugandila buztangorria kasu, edo txaradi-sugandila, biak babestuak Valentziar erkidegoan.

Santa Pola lurmuturraren iparraldeko itsasertzean, beste duna-lerro bat luzatzen da Elxeko kostaldean zehar.

Baina hemen, turismoarekin loturiko eraikuntzek bere desagerpena eragin dute hainbat zatitan.

Pasaia eraldatzen da, eta horrekin batera, ondare naturalaren zati bat galdu egiten da.